

Azkura

Mirari Martiarena

Ahaztuta ditugu Gabonetako turroi eta polboroiak. Nahiz eta etxe gehienetan sukaldean bueltaka mazapan lehorren bat ibili martxora bitartean. Eguberri eguneko parrandan gertatutakoa ekarri nahi dut gaurkoan zutabe honetara. Parranda egin genuen, eta, askotan pasa ohi den bezala, ezagutzen ez genituen pertsonekin bukatzen genuen hizketan, txupitoak partitzen edo bertsotan. Hamar laguneko kuadrilla, hiru neska eta zazpi mutil. Jakina da goizaldeko ordu bietan mundu guztia dela bertsolari, eta puntuka hasi zen gure bertso festa. Mutiletako batek puntua jartzen zuen, nik erantzun, hirugarren puntua botatzen zuen eta laugarrenean erantzutera nindo-

ala berak ahotsa altxa eta berak erantzuten zuen. Behin baino gehiagotan egin zuen gauza bera eta kantatzeari utzi nion. Horretarako jarrai zezala bere buruarekin! Ni isilduta, mutilen artean jarraitu zuten bertsotan. Nire lagunetako batek (neska), puntukako joko horretan sartu nahi zuen. Egin ahalak egin zituen, baina ez zuen emaitza onik lortzen. Neskak, estrategia aldatu eta doinua eta neurria aldatu zituen. Segidillan abesten hasi zen eta neurri horretan ere ez zioten jarraitzen. Gure lagunak altu esan zuen: «Jode, nik segidilla abestu nahi dut!», eta ekiteko esan genion, nik jarraituko niola. Mutilak adi zeuden, eztarria garbitu, arnasa hartu eta hor bota zuen: «Azkurea dut pototan!».

Hiru neskok barrez lehertzen hasi ginen, eta ez esan zuenagatik, mutilek jarri zuten aurpegiengatik baizik. “Potota” ozen esateak paralizatu egin zituen denak, marrazki japoniarretako tantak txiki geratzen ziren euren kopetetan behera. Eta esaldiak oihartzuna egiten zuen tabernako hormetan, «azkurea dut pototan, -otan, -otan». Mutiletako batek «azkurea dut pototan» kantatu izan balu han ez zen ezer gertatuko. Munduko gauza normalena izango zatekeen eta baten batek jarraituko zukeen erantzuten. Baina badirudi ezin dela “potota” hitza jende aurrean esan eta gutxiago azkura izaten dugula bertan. Nonbait pototak belarrietan ematen duelako azkura. •

«Zaldiarango mamu-txirrindularia»

Lehenengo asteburuan bizitzan gutxitan aurkezten diren aukera horietako bat suertatu zitzaidan: hiri kondaira bat egiaztatu ahal izan nuen. Gasteizen, aspaldi, bolo-bolo dabil bizikletaren zaletuen artean “Zaldiarango mamu-txirrindulariaren” istorioa. Diotenez, bizikletari misteriotsu bat agertu ohi zaie errepideko errebuelta batean mendatean gora dabiltzanei; paseorako moduko burdinazko txirringa zahar batean; ez kanbiorik, ez pedal automatikorik, ez karbonozko koadrorik. Bihurguneko ezezaguna parean jartzen zaio txirrindulari iaio eta sasi-profesionalari eta

haren erritmoari eusten dio. Ziklista prestuak, berriz, amuari heldu eta erritmoa bizkortzen du, pertsonaia xelebrea atzean utzi nahian. Baina mendateko iratxoak, halako batean, abiadura areagotu eta asfaltoan iltzatuta, arnas-estuka, eta lotsagorrituta uzten du eliteko bizikletazalea. Bada, iragan larunbatean, Zaldiaranerako bidean, aurrez aurre topatu nintzen kondairako pertsonaiarekin; bere Gacela herdoilduan; irrati aparailu bat manillarrari zinta itsaskorrez lotua; zira horia soinean; eta, misterioa elikatzearren-edo, aurpegia estalia. Bera zen, ez bairik gabe, “mamu-txirrindularia”.

Biharamunean, familia arteko bazkarian, koinatua, asteburuko txirrindulari profesional frustratua, eseri zitzaidan ondoan. Kontu kontari hasi zen bere gama altuko txirringatzar berriaz eta karbonozko koadroaz, entrenamendu programa bereziaz, errendimendu altuko dietaz eta bizikleta gaineko azken balentriez. Gogaikarriak dira zorri piztu bigorexikoak eta haien erretorika. Eurak eta euren gorputz landuak, beste hizpiderik ez dute. Nik, bitartean, Zaldiarango errebueltako menderatzailea nuen gogoan. Zenbat txoropito dauden munduan handinahiak apalduko dizkien mamu batekin topatzea mereziko luketenak!

Koldo Sagasti